



Arartekoaren 2019R-1851-18 Ebazpena, 2019ko abuztuaren 8koa. Horren bidez, Durangoko Udalari eta Bartolome Ertzilla musika eskola kudeatzen duen administrazio-erakunde autonomoari gomendatzen zaie udalaren musika-eskolako tarifak ikuskatzeko. Hori guztia, erroldaren erreferentzia baztertzeko udal zerbitzu publiko honetako erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoak zenbatzeko irizpide gisa.

Aurrekariak

1. Familia kexagileak Arartekoaren aurrean kexa jarri zuen, ikasten diharduten ikasleak Durangoko udalerrian erroldatua edo ez erroldatua egotearen arabera, Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan tarifa desberdinak ezartzearekin ados ez zegoelako. Nolanahi ere, berdintasun-printzipioaren aurka doa.

Gainera, kaltetutako pertsonak azaldutakoarekin bat, azkeneko urteetan udalerrian erroldatu gabeko eta bertan erroldatutako ikasleen tarifak alderatuz gero, lehenengoentzat prezio publikoaren zenbatekoa ia bikoitza zen.

2. 2018ko irailaren 9an familia kexagileak Durangoko Udalaren aurrean desadostasuna adierazi zuen, bere ustez, tarifa ezberdinak tokiko udalbatzen zerbitzuei buruzko araudiak 150. artikuluan xedatutako aurreikuspenak urratzen baitzituen. Zehatz-mehatz esanda, zerbitzu publikoen tarifei dagokienez, erabiltzaileen berdintasun-printzipioa ezartzen du. Dena den, erreklamazioarekiko berariazko ebazpenik ez du jaso.
3. Arartekoak informazioa eskatu zuen eta horri erantzuteko, Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskola eta kontserbatorioak erakunde honi ebazpenaren kopia helarazi zion. Horren bidez, familia kexagileari eskaera ezesten zitzaiola jakinarazi zitzaion.

Familiak zerbitzu publikoen tarifen aurrean erabiltzaileen berdintasuna defendatzeko emandako argudioari buruz, hasieratik aurreratu behar da ebazpenak aipamenik ez duela egiten, hau da, ezesten denean, ez da adierazten Bartolome Ertzilla musikako ikasleek ordaintzen dituzten tarifei zergatik ez zaizkien aplikatzen tokiko udalbatzen zerbitzuei buruzko araudiak 150. artikuluan zerbitzu publiko guztiei, salbuespenik gabe, ezartzen dizkien aurreikuspenak.

Nolanahi ere, laburbilduz, Bartolome Ertzilla musika eskolak eta kontserbatorioak defendatzen dituen argudioak honako gogoeten inguruan ardazten dira:

- Bartolome Ertzilla musika eskola eta kontserbatorioa administrazio erakunde autonomoa da.





- Erakundea aplikatzen dituen tarifak finkatzeko gaituta dago.
- Erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifen kargura finantzaketa erakundearen funtzionamendu-gastuak estaltzeko hondarrezko estaldura-bitartekoa da, % 30etik beherakoa, alegia. Finantzaketa Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta beste enpresa batzuek egindako ekarpenarekin osatzen da. Horiei esker, gastuaren ehuneko osagarria estaltzen da. Izan ere, 2016. urtean % 15,82n kokatu zen.
- Ondorioz, Durangoko Udalaren ekarpenak estaltzen ditu erakundearen funtzionamendurako kostu gehienak eta, beraz, Durangoko biztanleek, zergak ordainduz, zeharka beren gain hartzen dituzte Bartolome Ertzilla musika eskola eta kontserbatorioa existitu eta mantentzeko kostuak.
- Durangoko udalerrriak Durangaldeko eskualdearen buru modura jarduten du, beraz, praktikan udal-mugapea gainditzen duten zerbitzu publikoak eskaintzen ditu eta bertan kokatzen da musika eskola. Hala ere, inguruneko tokiko erakundeek ez dute finantzaketa partekatzen.
- Ondorioz, Durangoko herritarrek inguruneko udalerrietan bizi direnek baino karga ekonomiko handiagoa jasaten dute. Beraz, prezio publiko berdinen ondorioz ikuspegi formaletik berdintasunak egiaz Durangoko herritarrentzat desberdintasuna ekarriko luke.
- Konstituzio doktrinak tratu desberdina ahalbidetzen du, zalantzan jarritako arauaren helburuak justifikazio objektibo eta arrazoizkoa eskaintzen duenean.

"La diferenciación tarifaria en el precio público del Organismo Autónomo, además de basarse sobre justificaciones de carácter económico, tiende a conseguir una mejor distribución de los costes del servicio y a dotar de mayor proporcionalidad en la cobranza en atención a la carga tributaria que de manera previa ya soporta la ciudadanía duranguesa. De este modo, se pretende la igualdad fáctica y no puramente formal, la que por atenerse de manera inamovible al contenido del artículo 14 de la Constitución, despliega un verdadero efecto discriminatorio sobre los empadronados".

- Udalen musika eskoletako tarifetan ezberdintasuna beste tokiko erakunde batzuek partekatu eta aplikatzen dute.





Gogoetak

1. Arartekoak, ezinbestez, aztertu behar du, auzotasuna irizpide nahikoa ote den udal-zerbitzu publiko baten erabiltzaileek ordaindu behar duten kuotan tratamendu desberdina ematea justifikatzeko edo, aitzitik, erroldatutako eta erroldatu gabeko pertsonen arteko bereizketa hori artifiziosua eta justifikaziorik gabekoa den eta, horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua jasotzen duen berdintasun-printzipioaren aurka doan.¹

Azpimarratu behar da Durangoko Udalbatzak toki erakunde horrek eskainiko dituen zerbitzuak behin erabakita, udalaren jarduna eremu arautuaren barruan kokatzen dela eta, horrenbestez, legezkoetasunaren printzipioaren menpe.

Zentzu honetan, nahitaez, abiapuntuak honakoa izan behar du: Espainiako Konstituzioak 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, aginte publikoen jardunak Espainiako Konstituzioari eta gainerako antolamendu juridikoari jarraitu behar die.

2. Berdintasun-printzipioa aztertzerakoan, Konstituzio-auzitegiaren etengabeko doktrina finkatua hartu behar da abiapuntutzat; izan ere, horrek adierazten du tratamendu-desberdintasuna onar daitekeela hori irizpide objektibo eta zentzudunetan oinarritzen denean.

Zentzu horretan, Konstituzio-auzitegiak adierazi izan du berdintasun-printzipioak ez dakarrela nahitaez kasu guztietan lege-tratamendu berbera ematea, garrantzi juridikoa duen edozein elementu bereizgarri bakartuz. Hortaz, gai zehatz baten arauketari dagokionean araudi-tratamendu desberdina emateak ez du beti esan nahi Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasotako agindua urratzen denik. Izan ere, soilik hartuko dira arau-haustetzat bereizketa hori egiten denean berdinak diren egoeren artean, horretarako justifikazio objektibo eta zentzudunik eman gabe. Azken batean, berdintasun-printzipioak arbitrarioak diren edo justifikazio zentzudunik ez duten bereizketa-elementutzat har diren elementuak erabiltzea debekatzen du. Beste era batera esanda, berdintasun-printzipioak debekatzen dituen desberdintasunak artifiziosuak edo justifikaziorik gabekoak izan daitezkeenak dira, hain zuzen ere, irizpide objektibo eta zentzudunetan oinarrituta ez egoteagatik, oro har onartutako irizpide edo balio-judizioen arabera.

3. Ordaindu beharreko tasen zenbatekoan bereizketak egitean, erroldatzea ez da juridikoki onar daitekeen irizpide bat. Hori da epaitegien doktrina zabal batetik eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziatik atera daitekeen ondorioa.

¹ EK 14. art. "Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik".

Zergei dagokienez (hori da tasei dagokien eremua), berdintasun-printzipioa kontribuzio-gaitasunaren printzipioarekin dago lotuta, hori ezartzen duelako beren-beregi Konstituzioaren 31. artikulua haxe adieraztean: *"Guztiek lagunduko dute gastu publikoen euspenean bakoitzak ahal duen ekonomiko gaitasunaz zerga sistema baten bidez; berau berdintasun eta aurrerapen printzipioetan oinarriturik eta inoiz ez da konfiskagarri izango"*.

Horregatik, bi printzipio horiek konbinatzeak ahalbidetuko du tratamendu berezia ematea pertsoneri, hain zuzen ere, bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren arabera.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-legeriak beren-beregi jasotzen du ondorio berbera; zehazki, haxe preskribatzen du: *"Zerga-sistemaren antolamendua zergak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoan (...) oinarritzen da"* (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arauaren 2.1. artikulua).. Artikulu horrek ez du amaitzen zergak ordaindu behar dituztenen gaitasun ekonomikoa aipatzen; izan ere, ezartzen jarraitzen du, horrez gain, hauek direla zerga-sistema antolatzeko oinarriak: *"...justizia, orokortasun, berdintasun, aurrerakortasun, zerga-zamaren banaketa zuzenaren eta konfiskazio ezaren printzipioetan"*

Tokiko Ogasunak arautzen dituen foru araua da Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako baliabide-sistema arautzen duena. Foru arau horrek, tasak ordaintzera behartuta daudenen kontzeptua arautzen duenean (24. artikulua), ez du egiten errolatutakoen eta errolatuta ez daudenen arteko bereizketarik. Izan ere, errolatzea ez da Tokiko Ogasunen Foru Arauak tasak zenbateko ezartzen duen irizpide bat. Horri dagokionez, 25.4 artikulua udalerriak gaitzen ditu kontuan har ditzaten gaitasun-ekonomikoko irizpide orokorrak. Zehazki, artikulu horrek haxe ezartzen du: *"Tasen zenbatekoa zehazteko, kontuan hartu ahal izango dira haiek ordaindu behar dituzten subjektuen ahalmen ekonomikoari buruzko irizpide generikoak"*.

Beraz, ordenantza batek ezberdintasuna erantsiz gero, desberdintasun horrek ordenantzaren zeregina gainditzen duela ulertu beharko litzateke, *"Toki erakundeek (...) tasak ezarri ahal izango dituzte tokiko herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik, edota zergapekoei dagozkien edo haientzat eragin nahiz onura berezia dakarten zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean egiteagatik, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek ez badira zergapekoek beraiek borondatez eskatu edo jasotakoak, edota sektore pribatuak halako zerbitzu edo jarduerarik egiten ez badu."*, ordenantzak xedatzen duen tasaren arauketa hurrengo moduan egin behar delako: *"foru arau honetan ezarritakoaren arabera"* (21. artikulua).

Hau da, Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak tokiko erakundeen arautzeko ahalmena mugatzen du; horiek foru arauak ezartzen duen arauketa-esparrua errespetatu behar dute eta, adierazi den bezala, foru arauak ahalbidetzen duen gauza bakarra da bereizketak egitea kontribuzio-gaitasuneko irizpide orokorretan oinarritutako tasen subjektu pasiboen artean.

Horrenbestez, aurretik azaldutako horretatik ondorioztatzen da honakoa: zerga-ordenantza batek berdintasun-printzipioa urratzen du baldin eta ezartzen dituen tasetan, subjektu pasiboek, horien ahalmen ekonomikoa gorabehera eta soilik udalerrian erroldatuta egoteagatik, udalerritik kanpo bizi diren subjektu pasiboek baino gutxiago ordaintzen badute, azken horiek ahalmen ekonomiko txikiagoa izan arren.

4. Hala eta guztiz ere, Bartolome Ertzilla musika eskolako erabiltzaileek emandako zerbitzua baliatzeagatik kontraprestazio ekonomikoa gisa ordaintzen duten kuotak ez dauka tasa baten izaera juridikoa, baizik eta prezio publikoaren izaera, hau da, zerga-izaera ez duen zuzenbide publikoko diru-sarreraren batena.

Figura hori aztertzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoan Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak egiten duen prezio publikoaren arauketara jo beharra dago; horrek hauxe adierazten du horren inguruan:

"44. artikulua. Kontzeptua

Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte zerbitzuak emateagatik eta udal eskumeneko jarduerak egiteagatik, beti ere foru arau honen 21. artikuluko 1. atalean zehaztutako inguruabarretariko bat ere ematen ez bada.

45. artikulua. Baztertutako zerbitzuak eta jarduerak

Ezin izango da prezio publikorik eskatu foru arau honen 22. artikuluan zerrendatutako zerbitzu eta jarduerengatik.

46. artikulua. Ordaindu beharra dutenak

Prezio publikoa duten zerbitzu edo jardueren onurak jasotzen dituztenek ordaindu beharko dute delako prezio publiko hori.

47. artikulua. Zenbatekoa

1. *Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua bete beharko du, gutxienez, prezio publikoaren zenbatekoak.*

2. *Horrela aholkatzen duten gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoko arrazoiak daudenean, erakundeak aurreko atalean aurreikusitako mugaren azpitik dauden prezio publikoak ezarri ahal izango ditu. Kasu hauetan behar diren zuzkidurak izendatu beharko dira erakundearen aurrekontuetan, halakorik dagoenean, diferentzia estaltzeko.*

48. artikulua. Kudeaketa

Toki erakundeek autolikidazio araubidean eskatu ahal izango dituzte prezio publikoak.

49. artikulua. Kobrantsa

1. *Prezio publikoa ordaintzeko beharra zerbitzua ematen edo jarduera burutzen hasten den unetik sortzen da, baina toki erakundeek zenbateko osoa edo zati bat aldeztu aurretik gordailutzea eskatu ahal izango dute.*
2. *Prezioa ordaindu beharra duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera ematen edo egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.*
3. *Prezio publikoen ondoriozko zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.*

50. artikulua. Finkapena

1. *Korporazioaren osoko bilkurari dagokio prezio publikoak ezarri edo aldatzea; hala ere, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorriz, tokiko gobernu batzordeari eskuordetzeko ahalmena izango du.*
2. *Toki erakundeek bere erakunde autonomiadunei egotzi ahal diete erakundeok beren kargura dituzten zerbitzuei dagozkien prezio publikoak finkatzeko eskumena, baldin eta prezio publiko horiek toki erakundeak ezarritakoak badira. Ezin izango dute hori egin prezioek kostua betetzen ez dutenean. Egozpen hori partzuergoen kasuan ere egin ahal izango da, era berdinean, horien estatutuetan besterik jasota ez badago. Kasu bietan, erakunde autonomiadunek eta partzuergoek proposamenaren eta prezio publikoek zerbitzuaren kostua betetzen dutela erakusten duen ekonomi egoeraren kopia bidaliko diete beren gainetik dagoen toki erakundeari".*

Horrek esan nahi du, oso eskematikoki, hiru ohar nagusi izango direla prezio publikoak definitzen dituztenak:

- Prezio publikoa administrazio-jarduera bat edo herri-administrazio batek ematen duen zerbitzu bat ordaindu eta finantzatzen duen kontraprestazio ekonomikoa da, betiere administratuek borondatez eskatutako edo jasotako zerbitzuekin edo jarduerekin lotuta badago. Gainera, sektore pribatuak eman edo burutu ditzakeen zerbitzu edo jarduerak izan behar dira.

Horrela, udal prezio publikoak dira ohiko tarifa hauek: udalari kirol-jardueren, igerilekuen, musika-eskolen, haur-eskolen edo museoen truke ordaintzen zaien kuota, besteak beste. Hau da, sektore publikoak eskaintzen dituen jarduerak eta zerbitzuak finantzatzen dituzten tarifak eta eskatzailearen bizitza pribatuarentzat edo sozialarentzat nahitaezkoak ez direnak.

- Nahitaez jaso behar ez diren zerbitzuak edo jarduerak direnean, zerbitzuak edo jarduerak baliatzen dituztenek ordaindu beharko dituzte.
- Ordaintzera behartuta daudenek ordaindutako prezio publikoak, gutxienez, zerbitzuaren kostua bete behar du eta soilik hori gomendatzen duen gizarte-, ongintza-, kultura- edo interes publikoko arrazoirik badago, tokiko erakundeak prezio publikoak zerbitzuaren kostuaren azpitik ezarri ahalko ditu. Gainera, kasu horietan, tokiko erakundeak dagozkion zuzkidurak esleitu behar ditu bere aurrekontuetan alde hori ordaintzeko.

5. Azkenik, Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia onartu zuen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren aurreikuspenak aipatu behar dira, zehazki, 150. artikulua; horrek ezartzen du erabiltzaileen berdintasun-printzipioa zerbitzuen tarifei dagokienez eta, zehazki, hauxe preskribatzen du:

"1. La tarifa de cada servicio público de la Corporación será igual para todos los que recibieren las mismas prestaciones y en iguales circunstancias.

2. No obstante, podrán establecerse tarifas reducidas en beneficio de sectores personales económicamente débiles"

Toki udalbatzetako zerbitzuen araudiaren xedapen hori tokiko erakunde guztiak lotzen ditu eta ez dator bat zerbitzua erabiltzeagatik –erabiltzailea bizi den udalerrriaren arabera, eta ez ematen den zerbitzu zehatza edo erabiltzailearen egoera sozio-ekonomikoa– prezio handiagoa ordaindu beharraren alde egiten duen tarifa ereduarekin.

Agerikoa dirudi Bartolome Ertzilla musika eskolak erroldatuta ez daudenei ematen dien zerbitzua Durangoko udalerrian erroldatuta daudenei ematen diena bezalakoa dela. Horrela bada, eta ez dago bestela dela pentsatzeko arrazoirik, udaleko musika eskolako gaur egungo tarifa ereduak ez du betetzen zerbitzu



bera baldintza berdinetan emateagatik tarifa berdina kobratzeari buruzko printzipioa.

Bestalde, auzotasunaren datu soiletik, ezin da objektiboki eta zentzuz ondorioztatu *"ekonomikoki ahula den sektore pertsonal"* bat dagoenik. Izan ere, hori izango litzateke gure antolamendu juridikoak tokiko erakundeei eskaintzen dien faktore bakarra biztanle-talde baten alde ezartzeko tarifa desberdin bat zerbitzu berbera emateagatik.

Hau da, tarifetan bereizketarik egitekotan, justifikatuta egon behar du horrek, onura hori eskuratzen duten obligaziodunek gaitasun ekonomiko txikiagoa dutela-eta. Horren harira, adierazi beharra dago, orain arte ez dela erakutsi Durangon erroldatutako pertsonen gaitasun ekonomikoa musika eskolako gainerako erabiltzaileena baino txikiagoa denik.

Honakoa kontuan hartu behar da: *"herritarrek tokiko zerbitzu publikoetara iristeko berdintasuna izatearen printzipioa"* tokiko araubidearen, zuzendaritza politikoaren eta udalerrien gobernu ekintzaren printzipio gidaria dela Euskadiko tokiko erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 4. artikuluan.

6. Udalerriek hala erabakitzen dutenean, inguruneko udalerrien arteko administrazio-partaidetzaren formulak erabiltzea zerbitzua kudeatzeko oso formula egokia eta onuragarria izan daitekeela gorabehera, gaur egun ez da adostu zerbitzua mankomunitate edo partzuergoaren bidez kudeatzea eta, beraz, zerbitzu zehatz hau eskaintzeari dagokionez, ez dago indarrean.
7. Nolanahi ere, udal-finantzen mundu zailean sakondu nahi izan gabe, tokiko erakundeak ez dira bakarrik eta eskusiboki biztanleek ordaintzen dituzten tokiko zergen arabera finantzatzen.

Ukaezina da Durangoko biztanleek tokiko erakunde horretan dagozkien tokiko zergak ordaintzen dituztela. Dena den, egia da ere inguruko udalerrietako biztanleek beren jatorrizko udalerrietan dagozkien tokiko zergak ordaintzen dituztela eta horrek ez diela salbuesten Durangoko Udalari zergak eta tasak ordaintzez, adibidez, udalerrri horretan kokatutako ondasun higiezinaren titularrak badira edo Durangoko udalerrian kokatutako higiezinaren lizentziaren arabera obra egin behar badute. Modu berean, udalerrri horretan zergak ordainduko dituzte, bertan ekonomia edo industria jarduera garatuz gero.

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren; eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren; zabor, estolderia, obra eta terrazekin bide publikoa hartzeagatik tasen eta abarren subjektu pasibo berdinak dira udalerrian erroldatutakoak eta erroldatu gabekoak, zerga egitatea Durangoko udalerrian garatzen bada.



Hala eta guztiz ere, pertsona batek udalerrri jakinean ordaintzen duen zerga-karga zehatzak berez ez du agortzen eta ez da konfiguratzeko pertsonaren gaitasun ekonomikoarekiko erreferentzia baliokide gisa.

Halaber, tokiko erakundeen baliabideen zati garrantzitsua Itun Ekonomikoaren (zerga itunduak) baliabideen partaidetzatik dator, tokiko finantzaketarako foru funtsez zuzkiduren bitartez. Funts horri Bizkaian Udalkutxa deritzo. Era berean, tokiko erakundeak zerga ez-itunduetan onartzen zaien partaidetzaren kargura finantzatzen dira.

8. Horregatik guztiagatik, Arartekoak azpimarratu behar du erroldatuta egotea, printzipioz, inguruabar pertsonala dela eta ezin dela izan *per se* prezio publiko bat kuantifikatzeko faktorea, ez baitu agerian uzten "*ekonomikoki ahula den sektorea*".

Ondorioz, udal prezio publikoetan zein tasetan auzotasun-irizpidea jasotzeak, ordaindu beharreko zenbatekoa ezartzerakoan edo bertako biztanleen aldeko deskontuak edo hobariak ezartzerakoan, berdintasuneko, diskriminaziorik ez egiteko eta botere publikoen arbitraltasun debekuaren inguruko konstituzio-printzipioen aurkako diskriminazioa eragiten du.²

Zerbitzu publiko baten kudeaketa ereduaren hautaketak, betiere legezkoa bada, zerbitzuen erabiltzaileen babesa ez luke inolaz ere murriztu behar.

Zerbitzua zuzenean udalaren erakunde autonomoaren bidez kudeatzeak eskainitako zerbitzuak berdintasun-baldintzetan jasotzeko Bartolome Ertzilla musika eskola eta kontserbatorioko erabiltzaileen eskubidea ez du aldatzen.

Horri dagokionez, ezin da ahaztu Durangoko Udala zerbitzu publiko horren titularra dela, hortaz, bera dela musika-eskolan aplikatzen den tarifa-sistemaren azken erantzule erabiltzaileen aurrean. Ondorioz, Durangoko Udalari dagokio erabiltzaileei bermatzea berdintasun-printzipioa betetzea, udal zerbitzuen tarifei dagokienez (EKren 14. artikulua), baita Europar Batasuneko estatu kideetako lurraldean barrena askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko eskubidea ere (Europar Batasunaren Tratatu 3.2 artikulua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 21. artikulua eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartaren 45. artikulua).

² EK 9. art. "1. Hiritar eta botere publikoak Konstituzioaren eta araugintza juridikoaren menpean daude.

2-. Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta taldea osotzen dutenena benetazko eta eragileak izan daitezen; baita galerazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.

3-. Konstituzioak legalitatearen printzipioa garantizatzen du, baita arau hierarkia, arau publikitate, eskubi bakarren aurkako edo murrizgarri diren zigor disposapen atzeragaitza, ziurtasun juridikoa, ardura eta botere publikoen arbitrakeriaren eragozpena".



Zerbaitegatik zerbitzuak eskaini edo udal-jarduerak egiteagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantzak 12. artikuluan Durangoko Udaleko administrazio-erakunde autonomoetako, fundazio publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-batzarrei edo kontseiluei behartzen die Udalbatzako Osoko Bilkurari adostu dituzten prezio publikoen onespren edo aldaketen berri ematera.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat, Arartekoak Durangoko Udalari eta Bartolome Ertzilla musika eskola kudeatzen duen administrazio erakunde autonomoari hurrengo gomendioa egin nahi die:

GOMENDIOA

Udal musika eskolako tarifak aldatzea, udal-zerbitzu publikoaren erabiltzaileek ordaindu behar dituzten prezio publikoak zenbatesteko irizpide modura eroldari aipamena deuseztatzeko.

